



sabino
arana
fundazioa

**GOBERNU
KORPORATIBOAREN
TXOSTENA**

2023

SABINO ARANA FUNDAZIOA

TXOSTENAREN DATA 2024ko ekainaren 30a

A. SORTZAILEAK

Fundazio hori 1988ko urriaren 11n eratu zen, honako fundatzaile hauen babespean:

- A.1** Joseba Aguirre Zabala Jn.
Julio Jauregui Alonso Jn.
Patrick de la Sota MacMahon Jn.
Jesús Insausti Urkirizar Jn.
José María Ochoa de Chinchetru Oñate Jn.
Primitivo Abad Gorostiza Jn.

- A.2** Fundazioaren zuzkidura 1.000.000 pezetakoa da (6.010, €)

- A.3** Bazkide fundatzaileek Fundazioa eratu zen egun berean bakarrik izendatu zuten lehen patronatua.

B. PATRONATUAREN EGITURA

- B.1.** Patronatua gutxienez bost patronatukideek eta gehienez bederatzik osatuko dute.

- B.2.** Gaur egun bederatzi dira, eta 2023ko uztailaren 26an izendatu ziren.

- B.3.** Hauek dira patronatuan betetzen dituzten karguak

- Lehendakaria: Mireia Zarate Aguirre And.
- Lehendakariordea: Ainara Zelaia Markaida And.
- Idazkaria: Ignacio Etxeberria Olañeta jauna Jn.
- Diruzaina: Aitor Alzola Martínez de Antoñana Jn.
- Batzordekideak: Miren Azkarate Villar Anderea
Asier Barandiaran Barandika Jn.
Dany Camblong Jn.
Koro Garmendia Galbete And.
Mikel Hidalgo Bordegarai Jn.

Patronatu horrek ez du inolako batzorderik sortzea onartu.

C. PATRONATUAREN FUNTZIONAMENDUA

C.1. Patronatuko karguetan aginte-muga bat dago, estatutuen atal honen arabera:

"Kargu horiek gehienez bi (2) urteko indarraldia izango dute, eta denbora-tarte horretan behin eta berriz hautatu ahal izango dira. Behin epe hori iritsita, automatikoki iraungiko dira beren lanpostuetan, inolako formaltasun edo errekerimendurik behar izan gabe; nolana ere, presidenteak eta idazkariak beren lanpostuetan jarraituko dute, patronatukide eta/edo kargu berriak izendatzen diren bilerara arte".

- Ez dago adin-mugarik patronatuko kide izateko.

C.2. Patronatuko kideak eta patronatuaren bileretara bertaratutakoen edo bertaratze telematikoen ehunekoa

1. Mireia Zarate Agirre % 100
2. Aitor Alzola Martínez de Antofñana % 100
3. Mikel Hidalgo Bordegarai % 100
4. Miren Azkarate Villar % 100
5. Ainara Zelaia Markaida % 100
6. Koro Garmendia Galbete % 100
7. Ignacio Etxeberria Olañeta % 75
8. Asier Barandiaran % 50
9. Dany Camblong % 100

C.3. Patronatuak aurten izan dituen bileren datak

1. 2023ko martxoaren 30a
2. 2023ko uztailaren 26a
3. 2023ko azaroaren 22a
4. 2023ko abenduaren 27a

C.4. Patroiak hautatzeko aurreikusitako prozedura honako hau da:

"Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco-k izendatuko ditu patronatukideak, eta hari egokituko zaio patronatukideak kargutik kentzea, ordezkatzea beti eta une oro, bai eta behin betiko berrautatzea ere."

C.5. Patronatu honek aldian-aldian ebaluatzen du kideek erakundearekin duten ekarpena eta konpromisoa.

C.6. Legez, gure fundazioa ez dago behartuta auditatua izatera, ez baititu betetzen horretarako eskatzen diren kasu guztiak, hau da:

a) Aktiboaren partiden guztizkoa 2.400.000 eurotik gorakoa izatea.

b) Jarduera propioagatiko diru-sarreraren urteko bolumenaren zenbateko garbia gehi, hala badagokio, merkataritza-jardueraren negozio-zifrarena 2.400.000 eurotik gorakoa izatea.

c) Ekitaldian enplegatutako langileen batez besteko kopurua 50etik gorakoa izatea.

Hala ere, Patronatuak hala erabakita, kontu-ikuskaritza egiten da urtero. 2023. urteari dagokion auditoriak ez du inolako salbuespenik jasotzen.

D ZUZENDARITZA BETEARAZLEAREKIKO HARREMANAK

D.1. Patronatu honek ez du zuzendari betearazlerik izendatu. Lehendakaria da zuzendaritza hori betetzen duena.

E ERAGIKETAK LOTURADUN ALDERDIEKIN

E.1. Ez da inolako transakzio ekonomikorik egin fundazioaren eta patronoen artean
